

Adin txikikoak dituzten Gasteizko bi familia kale egoeran geratzeko arriskuan daude

ENEKO IMAZ GALPARSORO :: 28/06/2025

Duela urtebetetik duen aldi baterako harrera proiektua eten diote familia bati, eta bestea joan den astean etxegabetu zuten, inolako jakinarazpenik jaso gabe.

Ostegun arratsaldean eginiko agerraldian, Gasteizko Auzoan Bizi etxebizitza sareak salatu du adin txikikoak dituzten bi familia kale gorrian geratzeko arriskuan daudela. Etxebizitza sarearekin batera, agerraldian izan dira familia horietako kideak, Txagoko Komunitate Sarea eta Abendaño eta Federico Baraibar ikastetxetako hainbat irakasle eta familia -bertan ikasten dute kale egoeran geratzeko arriskuan dauden hiru adin txikioek-. Besteak beste, "interes ekonomikoak pertsonen bizitzari gainjarri" zaizkiola salatu dute.

Agerraldian azaldu dutenez, familietako bat duela urtebete sartu zen bizitzera La Bilbaina ostatura, CEAR Iheslariak Laguntzeko Espainiako Batzordeak duen aldi baterako harrera proiektu baten bidez. Familia horretako gurasoetako bat den Azizen arabera, harrera proiektutik "kanporatu" zituzten inolako alternatibarik eskaini gabe, eta La Bilbainak haiek etxegabetzeko prozesua abiatu du "konponbide bat negoziatzeko borondaterik" gabe. Azizek adierazi du ostatuari zenbait proposamen egin dizkiotela egoera konpontzeko asmoz -alokairu sozial bat ezartzea, esaterako-, baina erantzuna beti ezezkoa izan dela.

Gainera, gurasoak salatu du ostatuaren bizigarritasun baldintzek "prekarietate handia" dutela: "Urtebetez, baldintza okerretan dagoen ingurune batean bizi izan gara, egoera txarrean dauden altzariekin eta egiturazko arazoekin". Baldintza horiek "zuzenean" familiako kideen osasunean eragin dutela azaldu dute, batez ere gazteenean, asma bezalako arnasteko arazoen edota alergien agerpenarekin.

"Ez genuen abisurik jaso: Ez idatziz, ez ahoz"

Bigarren familiak, berriz, hilabeteak zeramatzan Txagorritxu auzoko etxebizitza batean bizitzen, aurreko astean, ekainaren 18an, inolako jakinarazpenik jaso gabe etxegabetu zuten arte. "Aurretik abisatu gabe, Polizia gure etxe aurrean agertu zen, eta atea bota zuten", azaldu du Akreemek, familia horretako semeetako batek. Kaleratzea gauzatu aurretik inolako jakinarazpenik ez jasotzea "guztiz irregularra" dela salatu dute, eta familiak etxegabetzeari aurre egiteko duen gaitasunari guztiz eragiten diola: "Juridikoki eta politikoki defendatzeko eta alternatiba bat bilatzeko eskubidea ukatzen zaigu".

Behin kale gorrian zeudela, gizarte zerbitzuek ostatu batean bost gau igarotzea eskaini ziotela adierazi du Akreemek. Gela bakarra zuten lau pertsonentzako, ordea, "intimitaterik gabe", eta ez familiako kide guztientzat: "Niri [Akreemer] eta guraso bati eskaini ziguten gelan bost gau gehiago igarotzea, eta, horrela, ostatuan zeinek jarraitzen zuen eta zeinek ez aukeratzea behartu ziguten".

Interes ekonomikoak, pertsonen bizitzen gainetik

Txagoko Komunitate Sareak "etxebizitza merkantzia gisa ulertzen dutenei" leporatu die bi familien egoeraren erantzule izatea, erakunde publikoen konplizitatearekin: "Beste behin ere, interes ekonomikoak pertsonen bizitzari gainjarri zaizkio". Gainera, erakunde horiei arazoa konpontzea eskatzen zaienean, "umiliaziotzat" har daitezkeen alternatibak eskaintzen dituztela adierazi du Txagoko Komunitate Sareak: "Ez ditugu zuen ogi apurrak nahi. Irtenbide integralak nahi ditugu. Auzoko bizilagunentzat bizi baldintza duinak nahi ditugu, putre ekonomikoen interesetatik salbu".

Federico Baraibar ikastetxeko hainbat irakaslek ere hitza hartu dute agerraldian, eta kezka adierazi dute etxebizitzaren arazoak euren ikasleengan duen eraginaren inguruan: "Udako oporrak hasi berritan, gure hiru ikasle kale gorrian geratzeko arriskuan daude, eta horrek eragin zuzena du haien osasunean eta ikasketa prozesuan". Salatu dute "ezinezkoa" dela ikasketetan zentratzea kale gorrian geratzeko arriskuak sortzen duen "bortizkeriarekin, ezegonkortasunarekin eta estresarekin".

Adin txikikoak dituzten Gasteizko bi familia kale egoeran geratzeko arriskuan daude

<https://eh.lahaine.org/adin-txikikoak-dituzten-gasteizko-bi>